

NORAEZAREN NORANTZAN

Ekaitz Goikoetxea

Beasain, 17 urte

Hamar metro, pauso bat...
han, han zakusat
gertu urruntasunean
urrun gertutasunean
infiniteko puntu
iheskorrean.

Bederatzi metro, pauso bi...
zure begirada hutsalaz
ez naiz ase,
osorik
behar zaitut
azal eta mami
mami eta azal
zaren bezalaxe.

Zortzi metro, hiru pauso...
begiak lauso,
nahi eta ezina uztarturik
burua hotz
bihotza bero
zureganako itxaropena
bihar edo etzi
gauzatuko dena.

Zazpi metro, lau pauso...
adats horail, begi garden
jazmina bezain lurruntsu
ortentsia bezain lerden
nire amets
eskuragaitza,
gaitza?
Eskura!

Sei metro, bost pauso...
nire barrunbe iluna
argitzen duzun
eguzki errainua
banoa,
gorpuztuz nire asmoa
ene besoetan
estutu zaitzadan
ilargia
iratzarri baino lehen.

Bost metro, sei pauso...
bide erdian,
urrun agian,
zeregin ezean
aurrera?
Atzera?
Noraezean
udazkeneko haize
zoroaren baitan.
Lau metro, zazpi pauso...
zangoak indarge,

bihotza zaunkan,
irribarre izozturik,
ametsak zapuzturik,
arnasa oztopo,
noiz egingo dut
zurekin topo?

Hiru metro, zortzi pauso...
lorategi birundan,
nola hautematen zaitudan
edertasunaren gudan,
hamaika larrosez
modu aproposez,
inguratua,
hau buruhaustea!
Zu zein zaren jakitea.

Bi metro, bederatzi pauso...
gerturatu ahala,
zure lurrinak,
zure petaloak,
zure edertasunak,
ohartarazi nau
arantzarik gabeko
larrosa zarela.

Metro bat, hamar pauso...
azkenean,
besoa luzatu
eta aiiii!
Ametsak amets

arantza odoltsu batek
zulatu dit bihotza,
baina zu
non zaude?

EZIZENA: ANBOTO